

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0060	Euskara ikasteko ikastaroak egiteko diru-laguntzak
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Diru-laguntzak emateko euskalduntze edo alfabetatze ikastaroak egin dituzten zornotzarrei, barnetegietan edo euskaltegi publikoetan edo pribatu homologatuetan.

NORK ESKA DEZAKE?

Amorebieta-Etxanon erroldatuta dauden eta, indarrean dagoen ekitaldian amaitu den ikasturtean (urria-iraila) barnetegietan edo euskaltegi publikoetan edo pribatu homologatuetan euskalduntze edo alfabetatze ikastaroak egin dituzten zornotzar guztiek.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E092 Helduentzako euskalduntze ikastaroentzako beka-eskaria](#)
- Eskaria aurkezten duenaren NAN.
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea. Ikasketak barnetegian egin badira, soilik matrikulari dagokion gastuaren banakapena erantsi beharko da, matrikula baino ez baita hartuko kontuan, eta ez egonaldia.
- Dagokion euskaltegiak emandako aprobetxamendu ziurtagiria.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Zelaieta zentroa](#)
Zelaieta zentroa
Zelaieta parkea z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
- [Zornotzako udal euskaltegia](#)
Zornotzako Udal Euskaltegia
San Pedro 5, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Ametx Erakunde Autonomoak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa](#)
- [887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua, azaroaren 17koa, onartzen duena](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Dokumentazioaren administrazio azterketa, HAZak egingo du
2. Euskara sailera bidali
 - Teknikaren eta administrazioaren ikuspegitik aztertu
 - Instantzia teknikoari zuzentzeko eskatu
 - Ebazpena
 - Jakinarazpena
 - Argitalpena

NORK ONARTU BEHAR DU?

Ametx erakundeko presidentea

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ametx erakunde autonomoa - Euskaltegia

OHARRAK

Eskakizun gisa ezartzen da ikasleek %80ko joan izana eta trebezia pasiboetan edo aktiboetan gutxienez maila bat gainditu izana justifikatzea.